


• MATTIN •



## Prostituzioa eta alternea

• M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES •

[ IJU-KO GIZARTE ONGIZATE ETA OSASUN ARLOKO BOZERAMAILEA NAFARROAKO PARLAMENTUAN ]

**P**rostituzioa edo diru truke harreman sexualak izatea munduko lanik zaharrena da, eta gizarte-, ekonomia- eta giza-faktore askori lotuta zabaldu da. Hala ere, gizarteak oraindik ere ez du onartzen alterne profesionala, zeina prostituzioa baino jarduera zabalagoa eta orokorragoa baita. Alterneak, jarduera eta kontzeptu gisa, hedadura handiagoa du, eta definitzen duen errealitateak giza-harremanetako beste alderdi batzuk ere barne hartzen ditu. Guztien oinarrian gurea bezalako gizarre garatueta zabalduetako eskaera eta behar bat dago, konpainiarena.

Alternean diharduten pertsonen eta lokalen kopurua nabarmen handitu da, neurri handi batean emigrazioaren fenomenoari lotuta. Herrien arteko desoreka sozial eta ekonomikoan dautza fenomeno horren sakoneko arrazoiak. Etorkinak etengabe iristen dira, batez ere Latinoamerikatik, Europako Erdialdetik zein Ekialdetik, eta Afrikako Iparraldetik, eta, ondorioz, batzuek jarduera horretan bilatzen dute bizibidea.

Hala ere, errealitate honek ez du inolako onarpen ofizialik, gizarrearen aurreiritziei aurre egin behar die, eta ez dago araurik edo kontrolik egiten den erari buruz. Horregatik, zehaztu gabeko jende kopuru bat marjinazioan bizitzera kondenatuta dago, errazagoa da premia-egoeren esplotazioa, eta alternean dihardutenak mota guztietako mafien eta esplotatzaileen preso bihurtzen dira, trukerako gai eta indarkeriaren jomuga gisa erabiltzen dituztelako. Lanbide honetako negozioetatik babesteko aitzakiarekin, beste pertsona batzuek mota guztietako mehatxuak eta bortxak

jasanarazten dizkiete, indarkeria fisikoa barne.

Alterne ordaindua zerbitzu-jardueratzat edo -prestaziotzat jotzen ez denez gero, ez da posible lan- eta zerga-eskubide zein obligazioak onartzea, nola langileenak hala jarduera esplotatzen duten enpresaburuak. Egoera horrek guztiz eragozten du egindako zerbitzuengatik soldata edo ordainsari bat erreklamatzeko, ez dagoelako eskubide hori babesteko duen inolako lege-obligaziorik, eta, era berean, etekin ekonomikoaren kopuru kalkulazekin bat ez-kutatzea errazten du, Herri Ogasunek ezin dutelako kontrolatu.

Europar, gobernuak eta gizarte erakundeak hainbat bide zabaltzen ari dira pertsonen marjinazio eta esplotazio gero eta handiagoari amaiera emateko, egunean baino egunean onartezinagoa eta justifikaezinagoa delako ekonomia- eta gizarte-garapen handiko estatuetan. Beharrezkoa da egoera aldatzea, etekin handiekin eta arrisku gutxiarekin trafikiko eta esklabotasun bide berri bat sortzea errazten duelako. Europako juristek, adituek, gobernu-organoei eta gizarte-eragileek beharrezko ikusten dute gai honetan ezmoraltasun kontzeptua bereiztea, guztiz subjektibotzat eta gaur egun defendaiezintzat jotzen dutelako, eta egoerari objektibotasunez, errealismoz eta legez ekitea. Onartzen dute jarduera honen zein darabilten pertsonen inguruko aurreiritziek baliorik gabe uzten dutela onarpen zibil eta ekonomikoa lortzeko edozein ekimen.

Arrazoi horiengatik, Nafarroako Izquierda Unida-Ezker Batuak ekimen legegile bat aurkezteko erabaki du alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzearen alde. Nafarroako Parlamentuak ain-

tzat hartzen badu, Diputatuen Kongresuan ere aurkeztuko da, kolektibo horri bere lanbidea onartzen duen lege-tresna bat ematearren, eta aukera izan dezan bere eskubideak gainontzeko langileen baldintza berdinetan aldezteko.

Jarduera hau antzina sortu zen, gizarrearekin batean, eta bertan dihardutenen eskubideak argi eta garbi onartuta soilik eman ahal izango diogu amaiera egoera honi, zeinak funtsezko giza eskubideak urratzen baititu, eta beste kolektibo batzuei onartutako eskubideak ukatzen. Lege-tresna batek baino ezin gairi dezake epe laburrean egoera iraingarri, bidegabe eta gizarre aurreratu bati ez dagokion hau, eta hark soilik alda ditzake gizarrean zabalduetako hainbat estereotipo, pertsona horiei guztiz galarazten baitiete egoera onargarrian bizitzea, independentzia pertsonala izatea, eta beste alternatiba batzuk lortzeko lehian baldintza berdinetan egotea. Beharrezkoa da arlo sozioralarean eta soziosanitarioren legezko jardura-oinarri batzuk finkatzea alternean diharduten pertsonen gainean, eta alternea egiten den lokalei gutxieneko baldintza batzuk betetzeko eskatu behar zaie, eta, era berean, jarduera honen erabilpen eta esplotaziotik sortutako lan- eta zerga-obligazioen kontrola egin behar da.

Jarrai dezakegu jokabide hipokritan izaten lanbide honen eta bizibide duten pertsonen gainean, edo objektibitatez eta arduraz egin diezaiokegu aurre hogeit Mendetik gorako errealitate honi. Hori ere erronka bat da XXI. mendeko Europarentzat, eta urrats bat aurrera egitea eskatzen du, guk egin nahi izan duguna.

• Erredakzioan itzulia

... **B** LUIS FERNANDEZ

### Nora doa beltz hori?



Ez nago ados etxe honetako zinema kritikariekin. Inaki Lazkano eta Begoña del Teso, biak datoz bat, itxura, Oscar sarietako banaketan *The red thin line* gerrako film saririk gabe utzi izana injustizia dela salatzerakoan. Zinema belikoaren alorrean, *Saving private Ryan* kaskarragoa dela, topikoagoa dela, dioskute. Egia gehiago omen du bere

barnean lerro gorriarenak, gerra bizitzea zer den hobeto islatzen omen du...

Zinemara joan ez direnek ere akaso ikusiko zuten trailer puska nahiko errepikatu bat. Soldadu gazteak han doaz, lerroan, belartza eder batetik oihanerantz; urrunean bonba hotsak entzuten direla, frontera doaz ikaraturik. Orduan, kontrako bidetik, indigena bat datorkie ia biluzik, gizon zahar bat, beltz-beltza, eta haien aldamenetik pasatzen da, kasurik egiten ez diela beldurrak jotako soldaduei. Eszena ederra da, eta berehala dator kizu ideia burura: Nora doaz gazte horiek hor, paradisu berde horren erditik, armaz kargaturik? Zergatik doaz hiltegirantz, batere kulparik gabe?

Film guztia horrela da. Soldaduen eginkizunaren absurdo ikaratzeko eta angustiosoaren erretratu bikaina da. Paraje ikusgarri batean filmatua: Guadalcanal. Batailaren tokian berean egin baitute filma. Paisaiak ez du parekorik: oiha-nak, animaliak, indigenak... Mundu exotiko harrigarria da Melanesiako uharte hura.

Hala ere, dena bluff hutsa da. Soldaduen angustiaren erretratu primeran dago lortua. Tamalez, beste galdera batzuk geratzen zaizkigu airean, eta hor dago nire kezka. Goian aipatutako eszena horretan, adibidez, niri sortu zitzaidan duda zera izan zen: «Nora doa beltz hori?». Nor da indigena hori? Zer pentsatzen du soldaduen gainean biluzik bizi den gizon horrek? Etxean gorde-tzen dituen buruhezurrak (beste eszena batean ageri dira beste beltz baten etxean) norenak dira? Bere arbasoenak, ala bere aitonak garbitu eta jandako aldameneko herriko etsaienak?

Indigena horiek paisaia hutsa dira film honetan. Beti bezala. Pelikula faltsua da, beraz Elia Kazan bezain faltsua. Are faltsuagoa, esango nuke, paisaia harrigarri hori delako filmaren edertasunaren zutarrria...

Eta gainera, hiru orduko *pakete* bat da.

### ...kornerra

MIKEL ELORZA

### Latinak

■ Justizia itsu irudikatzen da, baina itxuraz ez itsua delako; lotsagatik estaltzen zaizkio begiak. Ez ikusten ez duelako, alegia; ikus ez dezan baizik. Pinocheti buruzko erabakian, ohikoa duen beste jokaldia erabili dute: begiak zapiak estali beharrean, bakarria estali diote, txatal edo adabaki moduko batekin, eta begi-bakar utzi. «Bai, baina ez» horietako bat, esan nahi dut: arrazoi duzu, baina ez zaizu pagatuko; arrazoi duzu, baina kartez-lara joanen zara; arrazoi duzu, baina inork ez du bere deliturik ordaindu beharko. Eta abar. Gurrupila biribiltzeko, gainera, aditua ez denak ulertzen ez duen hizkuntzan esaten dira gauzak. Kontu teknikoak eta formazkoak aipatzen dira; latinaren izugarritzako antza duten hitzekin. Gehienek uler ez dezaten. Zehatzago: gehienek uler dezaten berriro ere izorratuko dituztela.